

UDAL BATZARRAREN AKTA

Akta zenbakia: 8/2002

Bilera data: 2002-07-04

Bilera mota: Ohizko osoko bilkura

Deialdia: Lehenengoa

Ordua: 19:30 – 21:55

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratutakoak:

Alkatea: Jose M^a Sarasola Goenaga

Alkate ordea: Pedro M^a Peñagarikano Labaka

Zinegotziak:

Miren Maite Aizpurua Etxeberria

Manuel Odriozola Iruretagoiena

Mikel Errazkin Agirrezabala

Rafael Uribarren Axpe

Mikel Zubillaga Galarraga

Jose Ignacio Otermin Garmendia

Idazkaria:

Iñaki Arrue Espinosa

Aztergaiak:

- 1.- Udalbatzarrak 2002ko ekainaren 6an egindako bilkurari dagokion aktaren onespina.
- 2.- Alkatetzako Dekretuen berri ematea 267 zenbakitik 308 zenbakira, biak barne.
- 3.- LOATZO Musika Irakaskuntzarako Mankomunitatearen erakuntza eta estatutuak onartzea eta Anoetako ordezkariak izendatzea.
- 4.- Itxitako ekitaldietako zenbait obligazio onartuak (gastuen aurrekontuko hartzekodunak) baliogabetzea).
- 5.- 2000ko ekitaldiari dagokion kontu orokorra onartzeko proposamena.
- 6.- 2002ko udal aurrekontu orokorra eta pertsonalaren plantila onartzeko proposamena.
- 7.- EUDIMAKo estatutuen aldaketen onarpena.

- 8.- TXOLARRE kultur Elkarteak ekonomi jardueraren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita geratzeko eskaera.
- 9.- Euskararen Aholku Batzordeak GALTZAUNDI aldizkariari buruz egindako proposamena.
- 10.- Euskararen Aholku Batzordeak TOLOSALDEKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOARI buruz egindako proposamena.
- 11.- Euskararen Aholku Batzordeak EGUNERORI buruz egindako proposamena.
- 12.- Anoetako Udala eta IHOBE S.A.ren arteko lankidetzaz hitzarmenaren berri ematea.
- 13.- Tolosaldea Garatzen S.A., Tolomendi, Tolosako Udala, Baliarraingo Udala eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren berri ematea.
- 14.- Batasunaren ilegalizazioaren aurkako mozioa.
- 15.- Galde-erreguak.

Esan-eginak eta erabakiak:

1.-. Udalbatzarrak 2002ko ekainaren 6an egindako bilkurari dagokion aktaren onespena.

Aipatutako akta alkateak irakurri du eta eztabaidarik egin gabe eta inongo eranskinik gabe dagoen dagoenean onartu du udalbatzarrak.

Erabakia

Bertaratutakoek 2002ko ekainaren 6an egindako bilkurari dagokion akta aho batez onetsi dute.
--

2.- Alkatetzako Dekretuen berri ematea, 267 zenbakitik 308 zenbakira, biak barne.

Alkateak egindako ebazpenen berri eman du, ebazpen horien zenbakiak 267tik 308ra bitartekoak izanik, biak barne.

Azkenik, eztabaida handirik egin gabe, udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Alkateak 267 zenbakitik 308 zenbakirako dekretuen berri eman du eta, beraz, udalbatzarra jakinaren gain geratu da.
--

3.- LOATZO Musika Irakaskuntzarako Mankomunitatearen erakuntza eta estatutuak onartzea eta Anoetako ordezkariak izendatzea.

Alkateak gaia aurkeztu du eta jarraian Manu Odriozola zinegotziak hitza hartu du adierazteko Foru Aldundiak proposatutako hobekuntza-aldaketak txertatu direla orain aurkezten diren estatutuetan eta oraingo honetan proposatzen da behin betiko estatutuak onestea, mankomunitatea eratzea eta Anoetako Udaleko bi ordezkariak izendatzea. Azken puntu honen inguruan Manu Odriozola zinegotziak ere proposatu du bi alderdietako ordezkari bana izendatzea, hain zuzen.

Mikel Zubillagak adierazi du, Kultura batzordean esan duenez, momentu honetan ez daukatela bere talde politikoko ordezkariak izendatzeko asmorik, bileretara joateko konpromisoa momentuz hartu nahi ez dutelako, eta beraz, eskatu du Batasuneko bi ordezkariak izendatzea.

Hala ere, utzi egin diote EA-EAJ/PNV taldeari geroago partehartzeko aukera irekia eta ,Mikel Errazkin zinegotziak proposatuta, EA-EAJ/PNV koalizioko bat ordezkari baten ordezkoa izendatzea erabaki dute.

Ikusirik, 2002ko martxoaren 13an egindako bilkuran Anoeta, Ibarra eta Zizurkileko udalerrien batzarrak Loatzo musika eskola musika irakaskuntzarako udalerrien mankomunitatearen estatutuak zehaztu zituela.

Ikusirik, 2002ko maiatzak 24eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 96 zenbakiduna, iragarki bidez estatutuen zehaztapena jendaurrean erakusgai egon zela.

Ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiak Loatzo musika irakaskuntzarako udalerrien mankomunitatearen estatutuei buruz luzaturiko erizpena aldekoa izan zela.

Ikusirik, bitarteko idazkariak egindako txostena.

Udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Udalbatzarrera bertaratutakoek aho batez erabaki dute:

1.- Zizurkil, Ibarra eta Anoeta udalerriek osatzen duten Loatzo Musika Irakaskuntzarako Udalerrien Mankomunitatea izeneko mankomunitatea eratzea.

2.- Loatzo Musika Irakaskuntzarako Udalerrien Mankomunitatearen estatutuak onartzea akta honen I: eranskinean azaltzen den zehaztapenez.

3.- Jose M^a Sarasola Goenaga (eta bere ordezkoa, Mikel Zubillaga Galarraga) eta Manuel Odriozola Iruretagoiena (eta bere ordezkoa, Mikel Errazkin Agirrezabala), Loatzo Musika Irakaskuntzarako Udalerrien Mankomunitatean Anoetako ordezkari gisa jardungo dutenak izendatzea.

4.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean honako erabaki hau eta onartutako estatutuak argitaratzea.

4.- Itxitako ekitaldietako zenbait obligazio onartuak (gastuen aurrekontuko hartzekodunak) baliogabetzea.

Alkateak Hazienda Batzordean aztertutako gaia aurkeztu du.

Ikusirik bitarteko idazkariak egindako txostena eta gaia eztabaidatu ondoren udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Udalbatzarrera bertaratutakoek aho batez erabaki dute:

1.- 2000ko likidazioan azaltzen diren 56.557.986 pezetako obligazio onartuek osatzen duten itxitako ekitaldietan gastuen aurrekontuko ondorengo hartzekodunak (ordaindu gabeko saldoen barne) baliogabetzea:

1996 urtea:	609.430.00.01 Kale Berri Garajeak	1.557.986 pza.
	609.450.00.01 Polikiroldegia	10.000.000 pza.
1997 urtea:	601.430.01.01 VPO lur-salerosketa	40.000.000 pza.
	609.450.00.01 Polikiroldegia	5.000.000 pza.
	Guztira	56.557.986 pza.

2.-, Alkate-lehendakariak, itxitako ekitaldietan goran adierazitako obligazio onartuen baliogabetzea kontuan hartuz, 2001eko likidazioa ebazteko baimentzea.

5.- 2000ko ekitaldiari dagokion kontu orokorra onartzeko proposamena.

Alkate-lehendakariak 2000 ekitaldiko Berezko Aurrekontuko Urteko Kontua eta Kontu-Egoeren berri eman ditu, Toki Erakundetako Aurrekontuei dagokien otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 62 eta 63 artikuluetan adierazten duenari jarraituz.

Ikusirik Udal Kontuetako Batzorde Bereziak 2002ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Urteko Kontuari eta Kontu-Egoerei buruz luzaturiko erizpena aldekoa izan zela.

Ikusirik 2002ko maiatzak 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 89 zenbakiduna, iragarki bidez kontu hori jendaurrean erakusgai egon zela.

Ikusirik Idazkari/kontu-hartzaileak 2002ko ekainaren 12an egindako txostena.

Kontutan harturik, Toki Jardunbidearen Oinarrien Arautzailea den apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 114 eta ondorengo artikulua, Toki Ogasunen arautzailea den Abenduaren 28ko 39/88 Legeko 193 artikulua, eta Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauko 62 eta 63. artikuluetan agintzen dena.

Guzti hau honela izanik udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Udalbatzarrera bertaratutakoek aho batez onartu dute 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorra eta kontu-egoerak onestea, honako agiri hauez osaturik:

- Egoera balantzea, ekitaldiaren amaieran.
- Galera eta irabazien Kontua.
- Diruzaintzako soberakina.
- 2000ko ekitaldiko txostena.
- Aktiboa. Epealdiko mugimenduak.
- Pasiboa. Epealdiko mugimenduak
- Aurrekontuz kanpoko zordun eta hartzekodunak: egoerak eta mugimenduak.
- Finantzaketa taula

6.- 2002ko udal aurrekontu orokorra eta pertsonalaren plantila onartzeko proposamena.

Alkate jaunak 2002 ekitaldirako aurrekontu orokorra, 2002 ekitaldirako plantila organikoa eta lanpostu zerrenda aurkeztu ditu.

Ikusirik, udaletxeko bitarteko idazkari/kontu-hartzaileak egindako txostenak.

EAJ-PNV/EA taldeko Otermin zinegotzi jaunak hitza hartu du adierazteko bere ezadostasuna hiru puntutan: Musika Eskolaren kostua gero eta garestiagoa dela, Udalbiltzari emango zaion dirua ez dela banatu bitan (bi udalbiltzari) eta inbertsioen inguruan Allegiko bidean argia jarriko ote den eta ur-sare publikoa konponduko ote den.

Alkateak erantzun dio ur-sare publikoaren hobekuntza "Saneamendu eta hormikuntza" kontu-sailean aurreikusita dagoela eta argikuntzarako proiektua aurreratuta dagoela datorren urteko ekitaldian argiak jartzeko. Beste aldetik, Musika Eskolako gastua bi zatitan banatuta dagoela: I. kapituluko pertsonal-gastua aurten orain arte gastatutakoaren arabera kalkulatu egin dena urteroko igoeraz, eta IV. kapituluko mankomunitateari egingo zaion aportazioa gutxi gora behera kalkulatu dena.

Udalbiltzaren inguruan Peñagarikano zinegotzi jaunak hitza hartu du esateko ez dutela planteatzen bi udalbiltzari edo udalbiltza bakar bati dirua ematea, proiektuaren arabera aztertu ondoren zeini emango zaiola ikusi beharko dela.

Jarraian Otermin zinegotziak ere galdetu du ea nola parekatu diren gastu arruntak eta diru-sarrera arruntak azkeneko Hazienda batzordean bata eta besteren arteko alde handia zegoela kontuan hartuz.

Alkateak erantzun dio, batez ere, zeharkako zergen aurreikuspena handitu dela eraikuntza eta obren gaineko zerga-bilketa iazkoa baino handiagoa espero delako.

Mikel Errazkin zinegotzi jaunak ere azpimarratu nahi du eta espreski jasota geratzea aurtengo aurrekontuan gastu arrunten %2a (4.500.000 pta./27.045,54 euro) dedikatzen dela euskara normalizatzeko.

Azkenik, Alkate jaunak 2002 ekitaldiko aurrekontu orokorra eta aurrekontua gauzatzeko udal arauaren onarpena bozkatzeko proposatu du ondorengo emaitzaz:

Alde: 5 (Batasuna)

Kontra: 0

Abstentzioa: 3 (EAJ-PNV/EA koalizioa)

2002 EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORRA, laburpena kapituluz kapitulu honakoa izanik:

SARRERAK/INGRESOS

<u>kap./cap.</u>	<u>Izendapena/Denominación</u>	<u>Eurotan.</u>
1	Zuzeneko zergak /Impuestos directos:	202.460,-
2	Zeharkako zergak /Impuestos indirectos:	180.304,-
3	Tasa eta bestelako sarrerak /tasas y otros ingresos:	181.535,-
4	Transferentzi arruntak /Transferencias corrientes:	738.045,-
5	Ondare sarrerak /Ingresos patrimoniales	23.287,-
7	Kapital transferentziak /Transferencias de capital	408.688,-
9	Finantz pasiboak /Pasivos financieros:	1.297.573,-
	GUZTIRA SARRERAK/TOTAL INGRESOS:	3.031.892,-

GASTUAK/GASTOS

<u>kap./cap.</u>	<u>Izendapena/Denominación</u>	<u>Eurotan.</u>
1	Pertsonal gastuak /Gastos de personal:	613.733,-
2	Onds. arrunt eta zerb.gast. /Compra en bien.corr. y serv.:	388.711,-
3	Finantza gastuak /Gastos financieros:	6.010,-
4	Transferentzia gastuak /Transferencias corrientes	307.549,-
6	Inbertsio errealak /Inversiones reales:	1.690.045,-
8	Finantza aktiboak /activos financieros	19.834
9	Finantza pasiboak /Pasivos financieros:	6.010,-
	GUZTIRA GASTUAK/TOTAL GASTOS:	3.031.892,-

Segidan, alkate jaunak 2002 ekitaldirako plantila organikoa eta lanpostu zerrendaren onespena bozkatzea proposatu du; ondorengo emaitzaz:

2001 URTERAKO PLANTILA ORGANIKOA

A) FUNTZIONARIOAK/FUNCIONARIOS

<u>Lanpostuaren deitura</u> <i>Denominación de la plaza</i>	<u>Kopurua</u> <i>Número</i>	<u>Taldea 6/89</u> <u>Legeko 43.</u> <u>art</u> <u>arabera/Grup</u> <u>O</u> <u>B</u>	<u>Egoera</u> <u>Situación</u>	<u>Oharrak</u> <i>Observaciones</i>
1. Idazkari—Kontuhartzailea	1	B	J	
2.- Kultur Dinamizatzailea	1	B	H	Sortzeko/A crear
3. Administraria	1	C	H	
4. Administrari laguntzailea	1	D	H	
5. Zerbitzu anitzetako ofiziala	1	D	J	
6.- Erdi mailako teknikaria	1	B	H	Sortzeko/A crear

B) LANGILEGOA /PERSONAL LABORAL

<u>Lanpostuaren deitura</u> <i>Denominación de la plaza</i>	<u>Kopurua</u> <i>Número</i>	<u>TALDEA</u> <u>Grupo</u>	<u>Egoera</u> <u>Situación</u> <u>n</u>	<u>Oharrak</u> <i>Observaciones</i>
1 Aparejadora	1	B	F	Dedikazioa % 27
2 Gizarte laguntzailea	1	B	H	Dedikazioa % 48
3 Piano eta solfeo irakaslea	2	B	ALF	(1)
4 Gitarra irakaslea	1	B	ALF	(1)
5 Akordeoi irakaslea	1	B	ALF	(1)
6 Liburtegiko Arduraduna	1	C	F	Dedikazioa % 52
7 Administrari laguntzailea	1	D	F	
8 Kale garbitzailea	1	E	F	
9 Eraikin garbitzailea	1	E	F	
10 Peoia	1	E	H	
11 Peoi-Ofiziala	1	D	H	Sortzeko/A crear

- (1) Lanorduak desberdinak dira ikasturte batetik bestera, izenemandako ikasleen arabera/ La dedicación será diferente de un curso a otro, en función del número de alumnos.

EGOERA/SITUACIÓN:

J: Jabea /propiedad

F: Behin betiko/Fijo

H: Bete gabe/Vacante.

ALF: Aldizkako langile finkoak/Trabajadores fijos discontinuos

LANPOSTUEN ZERRENDA/ RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO

A) Karrerako funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak/Puestos reservados a personal funcionario

IZENBURUA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGAIK DESTINU OSAGA. OSAG. ESPEZIF.	TALDEA	ESKALA	KLASEA	HIZKUNTZA ESKAK. KOEF DER.DAT	BET. ERA	E.TIT	DED.	OHA RRA
Idazkari-Kontuhartz.	1	20 14.503,02	B	GN	3	4 94.XII.31	L	ZD/ED	%100	DBO %25
Kultur Dinamiza.	1	17 6.227,48	B	AA	EB	3 00.XII.31	LO	D	%100	Sortz.
Administraria	1	14 10.068,24	C	AO		3 94.XII.31	LO	B	%100	
Administr. Lagun.	1	11 9.177	D	AO		2 92.XII.31	LO	O	%100	
Zerb. Anitz. Ofiziala	1	11 10.903,9	D	AA	HL	2 94.XII.31	LO	O	%100	
Erdi mailako teknik.	1	17 11.635,12	B	AA	EB	3 01.VI.12	LO	D	%100	

B) Lan—hitzarmendun langile finkoentzat erreserbatutako lanpostuak/Puestos reservados a personal laboral fijo

Lanpostua	LANP. KOPURUA	ORDAIN OSAGAIK DESTINU OSAGA. OSAG. ESPEZIF	TALDEA	HIZKUNTZA ESKAK. KOEF DER. DATA	BET. ERA	E. Tit	DED.	OHARR AK
Aparejadorea	1	19 3.657,68	B	3 02.XII.31	LO	AT	%27	
Gizarte Laguntzailea	1	14 4.208	B	3 92.XII.31	LO	GZD	%48	
Piano eta solfeo irakaslea	2	13 (1)	B	3 00.XII.31	LO	MEG	(1)	(2)
Gitarra irakaslea	1	13 (1)	B	3 00.XII.31	LO	MEG	(1)	(2)
Akordeoi irakaslea	1	13 (1)	B	3 00.XII.31	LO	MEG	(1)	(2)
Liburutegiko ardura.	1	9 3.925,67	C	3 92.XII.31	LO	B	%52	(3)
Adm. Laguntzailea	1	9 9.177	D	2 94.XII.31	LO	O	%100	
Peoi ofiziala	1	10 10.112,2	D	1 00.XII.31	LO	O	%100	Sortzeko
Kale garbitzailea	1	7 7.456,82	E	1	LO	EZ	%100	
Eraikinen garbitz..	1	7 7.456,82	E	1 92.XI.31	LO	EZ	%100	
Peoia	1	7 7.456,82	E	1 00.XII.31	LO	EZ eta PTP	%100	

- (1) Lanorduak desberdinak dira ikasturte batetik bestera, izenemandako ikasleen arabera/ La jornada será diferente de un curso a otro, en función del nº de alumnos.
- (2) Donostiako Lan arloko 1. go epaitegiaren sententzia, Aldizkako Finkoak izendatuz/ Sentencia del Juzgado de lo Social nº 1, declarándolos fijos discontinuos.
- (3) Donostiako Lan arloko 4. epaitegiaren sententzia fijo izendatuz/ Juzgado de lo Social nº 4 declarándola fija.

KLABEAK/CLAVES

TALDEA EDO ESKALA/GRUPO O ESCALA

GN Gaikuntza nazionala/Habilitación nacional

AO Administrazio orokorra/Administración General

AA Aparteko administrazioa/Administración especial

KLASEA/CLASE

3 Hirugarrena/Tercera

HL Herri lanetarako langilea/Personal de oficios

EB: Eginbehar bereziak/Cometidos especiales

ESKATURIKO TITULUA/TITULO EXIGIDO

ZD: ZUZENBIDEDIPLOMATUA/Diplomado en Derecho

ED: ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA/ Diplomado en C.s Empresariales

D: EDOZEIN DIPLOMATURA EDO ERDI MAILAKO UNIBERTSITATE TITULOA, EDO LIZENTZIATURAKO LEHENENGO HIRU URTEAK GAINDUTUAK./Cualquier Diplomatura o Título Universitario de Grado Medio, o haber superado los tres primeros cursos de una licenciatura.

AT: ARKITEKTU TEKNIKO/Arquitecto Tco.

GZD: GIZARTE ZERBITZUETAN DIPLOMATUA/ Diplomado en Trabajo Social

MEG: MUSIKA ERDI GRADUA/Música Grado Medio

B: BBB EDO BALIOKIDEA/ BUP o equivalente

O: OHO EDO BALIOKIDEA/EGB o equivalente

EZ: ESKOLA ZIURTAGIRIA/Certificado de escolaridad

PROBISIO ERA/FORMA DE PROVISIÓN

L:Lehiaketa/Concurso

LO:Lehiaketa oposaketa/Concurso-oposición

O:Oposaketa/Oposición

Suertaturiko emaitza honakoa izanik:

Alde: 8 (Batasuna eta EAJ-PNV/EA koalizioa).

Aurka: 0

Abstentzioak: 0

Bozketaren emaitzaren ondorioz, eta alkate jaunak egindako proposamenaren arabera, udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Lehenena: Entitate honen 2002 ekitaldirako aurrekontu orokorra onestea atal guztietan.

Bigarrena: Aurrekontua gauzatzeko udal araua onestea.

Hirugarrena: 2002 ekitaldirako plantila organikoa eta lanpostu zerrenda onestea, Alkate jaunak aurkezturiko proposamenaren arabera.

Laugarrena: Hasierako izaeraz onetsi den aurrekontua eta plantila organikoa eta lanpostu zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean dagoen legediak agintzen duen eran.

Aurrekontua jendaurrean aurkezturik dagoen epealdian inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da berriro, kapituluz kapitulu laburturik.

Bosgarrena: Aurrekontua behin-betiko izaeraz onetsirik, eta Plantila Organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren kopia bana, Eusko Jaurlaritzara eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, dagozkion departamendura.

Azken gai hau onartu ondoren Otermin zinegotziak alde egin du Udal Batzarretik eta beraz bertaratu diren gainerako udal kideek jarraitu dute osoko bilkuran.

7.- EUDIMAKo estatutuen aldaketen onarpena.

Ikusirik, 2001eko otsailak 1 EUDIMAREN batzar orokorrean estatutuak aldatzeko erabakiarekin bat etorriz, EUDIMA elkartearen zuzendaritza batzordeak Anoetako Udalak osoko bilkuran EUDIMA elkartearen estatutuaren 4. eta 5. artikulua aldatzeko luzatutako eskaera.

Gaia eztabaidatu ondoren, udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Udalbatzarrera bertaraturakoek aho batez onartu dute:

1.- EUDIMAKo estatutuen 4. eta 5. artikulua aldatzea, akta honen II. eranskinean azaltzen den idazkeraz.

2.- EUDIMAKo estatutuen aldaketa onartzen duen akordioaren berri ematea EUDIMA elkarteari.

8.- TXOLARRE kultur Elkarteak ekonomi jardueraren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita geratzeko eskaera.

Ikusirik, Txolarre kultur elkarteak egindako salbuespen fiskalaren eskaerak Ekonomi Jardueraren gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duen 1/1993 Foru Dekretu Araugilearen 5.1,g) artikulua kasua betetzen duela, hau da: irabazi asmorik gabeko elkarteak denez eta Anoetako Udalarekin batera lankidetzako jarduerak burutzen eta jarduera horien ordainez dirulaguntzak jasotzen dituenek, udal onurakoa izendatzeko gai dela.

Ikusirik, eskaerari erantsitako ziurtagiriek eta bestelako dokumentazioak udal onurakoa frogatzen dutela.

Udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Udalbatzarrera bertaratutakoek aho batez onartu dute:

- 1.- Txolarre kultur elkartearen udal onurakoa dela onartzea.
- 2.- Ekonomi Jardueraren gaineko Zergatik salbuetsita geratzea, akordioa onartzen den egunetik aurrerako eraginez.
- 3.- Salbuespen fiskalaren erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari.

9.- Euskararen Aholku Batzordeak GALTZAUNDI aldizkariari buruz egindako proposamena.

Mikel Errazkin zinegotzi jaunak aurkeztu eta azaldu du gaia.

Ikusirik, Euskararen Aholku Batzordeak 2002ko ekainaren 5ean egindako bileran proposatutakoa.

Ikusirik, Uribarren zinegotzi jaunak proposatu duela proposamenaren bigarren puntua (hau da, Galtzaundi Euskara Taldeari eskatzea multimedia enpresa bat sortzea, komunikabideen arloan euskararen aldeko pauso eragingarriak emateko) sakonkiago eta hobeto aztertzeke mahai gainean uztea.

Gaia eztabaidatu ondoren udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Udalbatzarrera bertaratutakoek aho batez onartu dute Galtzaundi Euskara Taldeari 1.725 euroko dirulaguntza, hau da, biztanleko 1 euro, ematea, "Galtzaundi" izeneko aldizkaria finantzatzeko.

10.- Euskararen Aholku Batzordeak TOLOSALDEKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOARI buruz egindako proposamena.

Mikel Errazkin zinegotzi jaunak aurkeztu eta azaldu du gaia.

Ikusirik, Euskararen Aholku Batzordeak 2002ko ekainaren 5ean eginiko bileran proposatutakoa.

Gaia eztabaidatu ondoren udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Udalbatzarrera bertaratutakoek onartu dute:

1.- Tolosaldeko “Bai Euskarari Akordioa” (TEPE) eta “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia” (EBPN) bultzatzea eta uztartzea, Tolosaldeko herri guztietan batera eta modu koordinatuan.

2.- Uztarketa modu bateratuan egiteko Tolosaldeko Jarraipen batzordea osatzea, udalak, euskararen gizarte-erakundeak eta eskualdeko gizarte-eragileak osatua. Batzorde honek zuzendaritza lanak egingo ditu, planak onartu, gizarte eragileei konpromisoak hartzea eskatu eta guztiaren jarraipena egingo du.

3.- Galtzaundi Euskara Taldeari 1.296 euroko dirulaguntza, hau da, biztanleko 0,75 euro, ematea, TEPE prozesuaren sustapena eta segimendua finantzatu ahal izateko.

4.- Erabaki honen berri ematea ondoko erakunde eta ordezkariiei:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza (Patxi Goenaga).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza (Lore Leanizbarrutia).

Tolosaldeko Euskararen Plan Estrategikoaren Jarraipen batzordea.

“Bai Euskarari Akordioa” Kontseilua (Xabier Mendiguren).

11.- Euskararen Aholku Batzordeak EGUNERORI buruz egindako proposamena.

Mikel Errazkin zinegotzi jaunak aurkeztu eta azaldu du gaia.

Ikusirik, Euskara Batzordeburuak 2002ko ekainaren 28ko dataz egindako eskaera.

Ikusirik, Uribarren zinegotzi jaunak proposatu duela proposamenaren bigarren puntua (hau da, Tolosaldeko Komunikabideak SL enpresari Tolosaldeko gainerako euskal komunikabideekin multimedia enpresa bat sortzea eskatzea, komunikabide guztiak elkarrekin pausu eragingarriagoak eman ditzaten) sakonkiago eta hobeto aztertzeko mahai gainean uztea.

Eta gaia eztabaidatu ondoren alkateak proposatu du proposatutako 1. eta 3. puntua bozkatzea hurrengo emaitzaz:

Alde: 5 (Batasuna)
Aurka: 2 (EA-EAJ/PNV)
Abstentzioa: 0

Beraz, udalbatzarrak hatu du ondorengo:

Erabakia

Udalbatzarrak gehiengo osoaz onartu du:

- 1.- Tolosaldean Egunero egunkariaren argitaratzaile den Tolosaldeko Komunikabideak SL enpresari 5.988,73 euroko dirulaguntza bideratzea.
- 2.- Anoetako udalak publizitate ofiziala ezarri behar duenean Tolosaldean Egunero egunkarian ere jartzea.

12.- Anoetako Udala eta IHOBE S.A.ren arteko lankidetzaren hitzarmenaren berri ematea.

Alkateak Anoetako Udala eta IHOBE S.A.ren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren berri eman du.

Hortaz, eztabaidarik gabe udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Anoetako Udala eta IHOBE S.A.ren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren berri eman du alkateak eta, beraz, udalbatzarra jakinaren gain geratu da.

13.- Tolosaldea Garatzen S.A., Tolomendi, Tolosako Udala, Baliarraingo Udala eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren berri ematea.

Alkateak, Industri; Merkataritza eta Turismo Sailburuari eskatzen zaizkion laguntzak kudeatzeko asmoz, Tolosaldea Garatzen S.A., Tolomendi, Tolosako Udala, Baliarraingo Udala eta Anoetako Udalaren artean sinatutako lankidetza hitzarmenaren berri eman du.

Hortaz, eztabaidarik gabe udalbatzarrak aho batez hartu du ondorengo

Erabakia

Tolosaldea Garatzen S.A., Tolomendi, Tolosako Udala, Baliarraingo Udala eta Anoetako Udalaren artean sinatutako lankidetza hitzarmenaren berri eman du alkateak eta, beraz, udalbatzarra jakinaren gain geratu da.

14.- Batasunaren ilegalizazioaren aurkako mozioa.

Alkateak aurkeztu du “Batasunaren ilegalizazioaren aurkako mozioa” (akta honen III. eranskina).

Jarraian, Uribarren zinegotzi jaunak aurkeztu du mozio alternatiboa (akta honen IV. eranskina).

Eztabaidatu ondoren, aurkeztutako bi mozioak udalbatzarrak bozkatu ditu eta bozketaren emaitza ondorengoa izan da:

Batasuna taldeak aurkeztutako mozioa:

Alde: 5 (Batasuna talde politikoa)

Aurka:0

Abstentzia: 2 (EA-EAJ/PNV koalizioa)

EA-EAJ/PNV taldeak aurkeztutako mozioa:

Alde: 2 (EA-EAJ/PNV koalizioa)

Aurka:0

Abstentzia: 5 (Batasuna talde politikoa)

Erabakia

Udalbatzak gehiengo osoaz “Batasunaren ilegalizazioaren aurkako mozioa”, akta honen III. eranskinean azaltzen dena, onetsi du.

15.- Galde-erreguak.

Uribarren zinegotzi jaunak galdetu nahi du ea “kontseju taberna” erabiltzen den.

Erantzun zaio bakarrik festetan erabilia izan dela eta zenbaitetan bateria musika tresna jotzeko ere.

Uribarren zinegotzi jaunak ere galdetu nahi du ea 1. eremu eta 19. eremuaren arteko trukaketa gauzatu egin den eta ea Gipuzkoako Foru Aldundiko baimena beharrezkoa den.

Erantzun zaio bihar goizean trukaketa sinatuko dela eta Foru Aldundiari eskatu zaiola baimena, baina oraingoz eman gabe dagoela.

Bilkura amaiturik, agiri hau egin dut alkate-lehendakariaren oniritziarekin, eztabaidatutakoaz eta erabakitakoaz fede emateko.

Anoetan, 2002ko uztailaren 5ean.

Iñaki Arrue Espinosa
Bitarteko idazkaria

O.e.
Jose M^a Sarasola Goenaga
Alkatea